

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urriak 29 / III. urtea / 99. zenbakia

Zubian barna

Etorkizunerako erabakia



BINGEN AMADOZ

Legealdi bateko hasmen- ta- keinua izan omen zen baka- rrik Alliren partaidetza orain bi urte, Atarrabian antolaturiko Na- farroa Oinezen. UPNko presidentea estreinatu berriak ahoa bete hortz utzi gintuen orduan. Euskararen etsai amorratuak gure hizkuntzaren alde- ko ekitaldi nagusienetako batetan! Zaila egiten zitzaigun horrelakorik sinistea, begien aurrari ikusita ere. Etorri ziren ere presidentearen es- ku-hartzeak ez bakarrik euskararen aldekoetan. Amaiurra ere iritsi zen nahiz eta bere partiduen barnean ere inezture eta ostotsak sortu. Nafar guztion presidentea izan nahiko du agian, pentsatu quén. Urralburuk ho- rren zakar jokatu ondoren edozeini zabaltzen zitzaizkion itxaropenaren atariak pittin bat behintzat. Hez- kuntz-sailerako aukeraturiko lehen arduraduna nolako anti-euskalduna zen jakiteak etzuen alor horretan inungo susmo onik ekartzan baina... Hasierako keinuak etziren gutxi izan. Alli Nafarroa Oinezen, Alli Euskal- tzaindiako bileran, Alli Amaiurren, Alli euskararen aldeko matrikula- kanpaina egiten.

Bi urte joan dira eta keinuak errealtatara ez eramateaz gain ahaz- ten ari zaio ere gure lehen mandata- riari keinuak egitea. Bidera etzen egon. Urrun zegoen eta zonalde er- daldunean. Aurten hurbilago egin da eta zonalde euskaldunean baina Alli jauna ez da agertu. Sanz presi- dente-ordeak esan zuen hurrengo egunean etzitekeela ezkilak-jotzen ibili eta alde berean prozesioan. Lei- reko abadearen kargu-jabetzean egon behar zuela eta horrek omen zeukan lehentasuna. Kontua da Lei- reko ekitaldia arratsaldeko bostetan hasi zela eta jakina da Nafarroa Oi- nezek egun osoa irauten duela. Go- gorik ez eta asmorik ere ez izan eta gainera justifikazio ergelak eman na- hian. Nafarroa txikia dela agintari jaun-andreak! Alde batetik bestera joateko baduzue gainera kotxerik ez? Gogorik ez, hala ere. Inoiz izan al duzue? Etzarete kasualitatez izanen eskuinekin betidanik jokatu duen itxu- rak gordetzeko politikaren jarrai- tzaile zintzoak?

Markotegi ari da ateratzen ere bere lehenagoko amorrak. Lanbide hezkuntzako ikasleek ezin dute eus- karaz ikasi, PSOE eta UPNk asmatu- riko lege-eskaxak kontrako esku- bideak aldarrikatzen baditu ere. Laister zaudete beraz itxure- tan ere Urralbururen mai- la berean, errejio- nalista horiek.

Lerro hauek irakurri orduko Lan- dabaren Seaten edo Volkswagenen barruan geldituko den jakingo da ziurrenik. Nafarroako lantegirik nagusienaren etorkizuna erabaki lezakeen ebatzia, hain zuzen ere. Hasieran Wolfsburg-eko enpresa- rekin lotuta izanen zela iragarri ba- zen ere, Seaten krisiak —Arriortuak bere momentu onenean dagoela esan arren— dena nahastu eta franko zaildu du, eta planta nafarra Seaten barruan gel- ditzeko adierazpen ugari izan dira aste honetan. Sindikatuek ez zuten, Pragan egitekoa zen bileraren emaitzak jakin arte, inolako jarrerarik hartu nahi, baina Langile Batzordean na- gusi da VWrekin aurrera egiteko gogoia. Erabakia Alemanian hartu beharrekoa zen. Funtsez- ko erabakia.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Koke Ardaiz eskultorearen erakusketa zabalik dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Ikusteko ordutegia hau da: lan egunetan, 19.00etatik 20.30etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara. Azaroaren 7a arte iraunen du.

Natxo Barberena pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Azaroaren 14a arte iraunen du erakusketak, eta ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

ANTZERKIA

'Bi, bat eta huts' izeneko antzezlanak aurkeztuko du asteburu honetan Sambhu Mimo taldeak. Bi emanaldi izanen dira, bata igandean, urriak 31 eta beste astelehenean. Biak Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan plaza-ratuko dituzte, San Agustin kalean, arratsaldeko 20.00etan.

BERTSO SAIOAK

Andoni Egaña, Xabier Euzkitze, Jokin Sorozabal, Estitxu Arozena, Maialen Lujanbio eta Iratxe Ibarra bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, urriak 29, Iruñeko Aita Salestarren ikastetxeko areto nagusian. Iruñeko udalak antolatutik, arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Sarrerak 500 pezetatan salduko dituzte.

Xabier Amuriza, Mañukorta eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira igande honetan, urriak 31, Iturenen, Aurtitz auzoan. Bertso emanaldia gaueko 21.00etan hasiko da.

BESTELAKOAK


Mendiaren Astea antolatu du datorren asterako Berriozarko Gazte Elkartek. Hau dela eta, proiektio ugari antolatu dituzte. Asteazkenean, 'Xacobeo 93 en B.T.T.' izeneko botako dute, eta ostegunean, azaroak 4, 'Escalada en roca' izeneko. Biak, arratsaldeko 19.30etan hasiko dira, Gazte Elkarteko lokaletan.

Carmen Rico Godoy idazle famatuak hitzaldi bat eskainiko du datorren ostegunean, azaroak 4, Iruñean, 'Emakumea eta literatura' zikloaren barruan. Hitzaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Aurrezki Kutxa Munizipalak Armada etorbidean duen aretoan.

Mendi txirrindulaz egiteko ibilbidea aukeratu dugu asteburu honetarako, Nafarroa Oinezen egon ondoren, bertako mendiak hobeki bisitatzeko txirrintaz gelditu baldin bazinen. Ez zen egunik aproposena mendian barna aritzeko, lohia nonahi baitzegoen, gonbidatu gabeko bisistaria, alegia. Hala ere, ohar-tuko zinen ze kolorea zuten zuhaitzek eta ze edertasuna ezkutatzen zen mendien magalak soilik ikusten uzten zuten lainoen azpian. Hori dela eta, Sakanako Kirol Batzordeak antolatutako ibilaldiari eutsi egingo diogu, galdu zenuenaren ideia txikia, sikiera, hartzeko.

Txangoa igandean izango da, eta goizeko 9.30etan aterako da Altsasuko Mendigoizaleek Isidoro Melero kalean duten egoitzatik. 45 kilometro denetara, lau ordu t'erdi inguru eman behar dira ibilbidea egiteko, eta bertan Alzania eta Arabako hainbat mendi dotore oso bisitatu ahal izango dira.

Altsasutik, esan bezala, Zelanditik eta Ulaiarretik, Zegamara joateko hartu behar den bihurtun helduko gara, hortik Urdalurrera daraman bidea hartzeko. Altsasuko urtegi berriak nahiko itsutu du ingurua,



baina badakizue, urtegiak urtegiak dira, eta Burundako herriak behar beharrezkoa zuen, inork ez du dudan jartzen. Urdalur utzi ondoren, Txorrokopuntaren magaletik, Egin ganean dagoen Lezeko Hoyara helduko gara, Olanotik gertu, eta hortik abiaturik beharko dugu, Apotatik, gertu ikusten den Araiaraino, Araban dagoeneko.

Araian, errepidera daraman bidea aparte utzirik, Lezera, eta hortik Eginora, bideberritik

hurbil. Orduan hartuko dugu Olaztik bidea, eta hortik zuzen-zuzen berriro Altsasuraino helduko. Lehendabizikoa zatia da bereziki polita, bertako ehiztari eta mendizale porrokatuek izan ezik oso ezaguna ez den inguruak zeharkatzen baitira. Hori bai gogoratu lohia nonahi izango dela, franko, eta ongi prestatuta joateak merezi duela, Sakanako txirrindulariak apartak baitira. Ondo ezagutzen ditugu.

ASTEKO PERTSONAIAK



Maria Bayo
Abeslaria



Pedro Ruiz de Alegria
Gobernuko ordezkaria



Iñaki Subiza
Abokatua

Joan den astelehenean kontzertu bat eskaini zuen Iruñeko Gaiarren Antzokian Maria Bayo abeslaria, eta bertara joan zirenak txunditurik geratu ziren. Nafarroako Lankide Aurrezkiaren XXV. urteurrena ospatzeko antolatu zuten jaialdia, eta musikaren aldetik oso ongi aterata bazen ere, nota negatiboa ere izan zen bertan. Lankide Aurrezkiko ordezkaria atera zen ekitaldia aurkeztuta eta euskaraz hasi zen hizketan. Hasi eta berehala, ikusten zeudenetako batzuk, pixtuka eta soinu ataritzen hasi ziren, inolako errespetoa erakutsi gabe. Aurkezleak esan beharrezkoa esatea erabaki zuen, eta txistuen artean izan bazen ere, amaiera arte luzatu zen. Gero, erdaraz gauza bera errepikatu zuenean, ez zen inolako pixturik entzun.

Pedro Ruiz de Alegria izan da berriro protagonista aste honetan, askotan bezala. Oraingoan, ETAKo komandoek erabili ohi dituzten armak, lehergailuak eta bomba-autoak prestatzen eta banatzen zituen taldea desegin baitu Poliziak aste honetan. Sei lagun atxilotu eta 330 kilo leherkari, armak eta material ezberdinak atzeman dituzte agenteek egunotan. Ruiz de Alegria operazioaren berri eman zuen joan den egunean, eta bertan, «ETAK ez dauka irtenbiderik, gero eta garbiago dago», azaldu zuen. Era berean, atxilotetek ETAKi kalte handia egingo diotela esan zuen, «leherkariak sartzeko erabiltzen zuten bidea itxi dio» eta. Hala ere, «triunfalismoak» alde batera utzi behar direla gaineratu zuen, «oraindik azpiegitura garrantzitsua duelako Frantzia».

Iñaki Subiza abokatuak defenditzen zuen intsumiso bat zigorrak gabe utzi zuen joan den asteartean Alvaro Latorre epaileak, formazko akats bat zegoela eta. Cesar Ekai intsumisoa izan da Nafarroan absolbitzen duten lehendabiziko intsumisoa, baina ez da bakarrik izango, bere kasuan, «beste hamalau gazte daude, 1989an intsumiso egin zirenez guztiak, eta orduan, gaiarekin zer egin ez zekitenez, artxibatu zituzten kasuak», Subizak adierazi zuenez. Beraz, eta artxibatuz gero berriro irekitzea ezinezkoa denez, hamalau gazte hauek, ziurrenik, zigorrak gabe geratuko dira. Dagoeneko beste bi epaitu dituzte, baina epaia ez da oraindik aterata. Cesar Ekai intsumisoaren kasuan, ordeza, epaileak salan bertan eman zuen epaia, gazteak libre utziz inolako kargurik gabe.

AHAZTU GABE!

EUSKAL HERRIKO Bertsolari Txapelketaren azken laurdenetako saioa izanen da igandean Leitzan, Amazabal pilotalekuan, arratsaldeko bostetatik aurrera. Kanporaketan txapelketako A taldeko bertsolariek hartuko dute parte. Beraz, Jose Ramon Elortza, Iñigo Gojenola, Unai Iturriaga, Joxe Mari Lertxundi, Juan Mari Lopez, Jean Pierre Mendiburu, Angel Mari Peñagari-kano eta Jokin Sorozabal buru belarri arituko dira ahalik eta puntu gehien lortzeko xedez.

Euskal Herriko azken txapelketa nagusia 1989an jokatu zen, eta orduan Lopategi garraile atera zen. Lopategiren egungo sasoi, ordeza, ez da ordutako, eta bertsozale aunitzen irudikoz, bera ez da oraingoan faborito nagusia. Txapela bakarra lortzeko borrokan buru aunitz sarturik dago. Hori dela eta zaila da faborito nagusia zein den esatea, baina lehian buru belarri dabilzatenen artean behin eta berriz aipatzen ari da Peñaren izena. Kanporaketa honetan, beraz, ez da ustekaberik izan behar, eta albizardurrak bere nagusitasuna erakutsi beharko du. Bere ondorengorik ariko dira Sorozabal eta Iturriaga gazteak, eta nafarrok Mendiburu egingo duenari so egin beharko.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerako, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenetik 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenetik 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

KARRAPE irratia lehen eguna izanen da gaur, ostirala. Leiza eta inguruko herriendako sortua, euskara hutsez, 107.8 frekuentzian eta 12etatik 14ak bitarte entzun ahal izango dira kultura, merkatu txikia, abisuak, zorriak, txapelketak eta hainbat gai ezberdin. Herriko berriak, beraz, uhinean lehenbizikoz.

HERRIZ BERRI

Bera


Lurraren Eguna igandean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Lurraren Egunaren V. edizioa antolatu dute igande honetarako Gure Txoko Elkarteak, Udaren eta Gurasoen Elkarteen laguntzaz. 1987an lehen edizioa izan zuen egun honek arrakasta handia lortu du urtetik urtera, eta artisauei eta gasna egileei hainbat ekitaldi gehitu zaie denboraren poderioz. Aurten Euskal Herri osoko berrogeita hamarretik gora artisauak hartuko dute parte Eskulangintza Erakusketan, eta txarangak, dantzariak eta musika ere izanen da egun osoan zehar.

Egun honen sorburua Gure Txokoan dago, 1987an, galdu samarra zegoen baserri giroa egun batez berpiztea bururatu zitzaizenean. Horretarako eskulangintza azoka eta gasna lehiaketa antolatu zuten, inguruan zegoena ezagutarazteko. Izan ere, Bera eta Bortzirriak aldean beti egin izan dira gasnak eta eskulanak, baina ahaztuak edo ezezagunak ziren. Orduan 22 artisau azaldu ziren, eta taloa eta sagardoa ere prestatu ziren, gazteek egina. Artisauek ugaritu egin dira urte hauetan, baina gasna egileak murriztu.

HAURREN MURALAK IKUSGAI Igandeko egitaraua 10etan hasiko da, gasna lehiaketarekin, eta ordu erdi geroago za-



Artisauak Berako plazan bilduko dira.

balduko da artisautza erakusketak. Bertara zenbait artisau gonbidatu egiten dute antolatzaileek, eta beste batzuek deitu egiten dute parte hartzeko. Aurten go berezitasunak liburutegintza, txirula tresnak eta altzari margotuak izan litezke. Eguerdian bazkaria izanen da denendako Berako Eskoletan, eta arratsal-

deko bostetan emango da jakitera gasna lehiaketaren epaimahaiaren erabakia. 15.30etatik aurrera zabalduko da berriro artisautza erakusketak, ilundu arte, eta gaueko zortzietatik aurrera Izan musika taldeak joko du. Halaber, egun honen inguruan, Berako 9 urtetik aitzinekoak muralak egiten aritu ziren asteaz-

kenean eskoletan, eta egindako lan guztiak —50 inguru— igandean paratuko dira hormetan, ikusgai.

Antolakuntzarako 500.000 pezeta ematen ditu Udalak, baina horrek ez du estaltzen kostua, eta taloa eta sagardoa saltzen eta ostatuek ematen dutenarekin egiten da kitto.

Leitza

Karrape irratia hasi da emititzen

P. U. / IRUÑEA

Atzodanik aditu daiteke herrian irratia berria, 'Karrape' udal irratia hain zuzen ere. Udalak sortuta, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin, Leitza ezegiz, Areso, Arano, Saldias, Eratsun eta Ezkurran ere aditu daiteke, eta baita Goizuetako zenbait baserriaren ere. Euskara hutsean, hasierako bi orduak lura zabaltzeko asmoa dute udalean, eta horretarako bi langile kontratatu dira, egun erdiz: Anabel Alduntzin eta Abelina Zabaleta.

Atzo izan zen inaugurazioa, eta bertan parte hartu behar zuten Josetxo Lizartza kazetari leitza ezagunak. Halaber, igandean izanen den Baserriaren Eguna zela eta, zenbait elkarrizketa egiteko asmoa zuten arduradunek, bai baserriarekin bai EHNE nekazaritza sindikatuko kideekin ere. Irratiaren programazioa saio ezberdinek osatuko dute, 12 eta-



Irratiak bi orduz emititiko du egunero.

tik 14.00ak arte: elkarrizketak, lehiaketak, eta egunero gai ezberdin bat jorratuko da, hala nola osasuna, sukaldaritza, ohiturak, eta kulturako hainbat gai. Herrietako berriak ere izanen dira, aipatu herrietan berriemaile sarea osatu baita. Hori 12.35etan

izanen da, astelehenero, eta Uitzitza Iturengo berriak ere azalduko dira. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza milioi bat pezetakoa izan da, baina horrek ez du estaltzen bi langileen kostua, eta Udalak paratuko du gainontzekoa.

Lizarra

Azaroa eta ekologia, batera

IRUÑEA

Azaro Ekologikoa ospatuko da heldu den asteazkenetik aurrera, Lizarrako Talde Ekologistak antolatuta, hitzaldi, txango eta mahainguruekin. Bostgarren edizioaren hasiera azaroaren 5ean, asteazkena, izanen da, Jesus Elozegi biologoak Bardeci buruz emango duen hitzaldiarekin. Azaroaren 4ean, osteguna, 'Euskal Herriko ornodunak' izeneko hitzaldia eskeiniko du Joserra Aihartzak, eta ostiralean, aldaketa klimatikoari buruz ariko da Juan Carlos Martinez. Azaroaren 7an, igandea, txangoa egingen da Laguna de las Cañasera, eta azaroaren 10ean, asteazkena, John McTier-nan 'Los últimos días del Edén' izeneko filmea aurkeztuko dute. Azaroaren 11n, osteguna, 'Zezenketa, bai ala ez' gaiaren inguruko mahaingurua izanen da.




AEZKOAko Batzar Orokorra bultzatuta, ibarra berpiztu eta ekonomikoki garatzeko asmoak aurrera darrai. Aste honetan aurkeztu da Nafarroako Ingurugiro Sailak Iratiko oihanaren erabilera turistikoa aztertzeko. Txostenaz Cederna-Garalur elkarte arduratu da, Aezkoa eta Zaraitzuko ibarrekin batera. Izan ere, duela zenbait urtetik hona gero eta ugariagoak dira bertara hurbiltzen diren bisitariak, eta derrigorrezkoa dirudi oihanaren erabilera arautzeak. Hango lana hamar pertsonen burutu dute udan zehar, Cederna-Garalur eta Batzar koordinatuta. Halaber, Abaurregainean ostatu berria paratu du udalak, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz, eta luze gabe zabalduko da, ibarran dauden eskeintza turistikoei gehitzeko.

NOAINgo Elkar taldeak drogo-menpekotasunari buruz ihardunaldiak antolatu ditu, bizilagun eta taldeendako. Horrela, arazoari irtenbidek, herrian dagoen sentsibiltatearen ezagutza, informazio okorrak eta esperientzi ezberdinen ezagutza izanen dira helburuak. Egitasmoa herri eta zonalde ezberdinetan egingen da.



BURLATAko hainbat lagunek bertako karrika batean egindako lanak sortutako pitzadurak salatzeko geldiarazi zituzten aztermakinaren lanak pasa den asteartean, enpresak ez baitzuen kalteen ardura hartu nahi. Azkenean, eta bizilagunek erakutsitako jarrerari esker, bilera bat izan zen lanez arduratzen den enpresarekin eta akordio batera heldu ziren. Salatzekoa da horrelako erabakiak hartzeko protestaldiak egin behar izatea, baina franko dira Iruñerrian egiten ari diren lanak direla eta, bizilagunek jasan behar izan dituzten kalteak. Horren lekuko, oraindik konpondu gabe dagoen Berriozarko Eguzki plazarena.

URBASAko mendatea itxita egonen da astebetez, pasa den larunbatean bertan izan zen lur jauzia dela eta. Lizarra eta mendateren arteko bihurtune batetik hurbil, zuhaitzak, lurra eta harriak jauzi ziren errepidearen gainean, bertan zegoen paretak hautsi egin baitzen, euria eta eguraldia txarraren ondorioz. Eske-rrak inor ez zuen harrapatu, ikusgarri oso baita nola gelditu zen errepidea.



Landaben, zain

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Seat markak Zona Franca duen lantegia itxeko Volkswagenek aste honetan baieztatu duen berriak ekaitza sortu du Espainiako automobil arloan. Eta ekaitza honen erdian dago Iruñeko Landaben, Nafarroako enpresarik handiena, 4.100 langilerekin. Azken hiru urteotan bertan egindako inbertsioek Volkswageneko plantarik onenetako bilakatu dute, eta ezaguna zen aspaldinik Seatik bereizteko alemaniarrek zuten asmoa. Horrek, teoriaz, etorkizuna ziurtatzen zion, erraldoiaren babesaren azpian. Gauzak, baina, okertu egin dira azkenotan. Seaten krisiak adierazpen franko sortu ditu, eta batzuen ustez Landabenik gabe enpresa espainiarra ez litzateke bideragarria izango. Sindikatuak ere ez datoz bat, baina aste honetan bertan Prahango Volkswagenek aurkeztu behar zituen plangintzak dena zehaztu eta finkatuko du. Bitartean, Landaben zain dago. Etorkizunaren zain.

Landaben eta Volkswagenen arteko lotura onuragarria izan da, bistan da. AUTHI, British Leyland eta Seatekin aritu ondoren, gorabehera frankorekin, Alemaniako enpresak eman dio Iruñeko lantegiari egun daukan boterea eta garrantzia. Horretarako, dauka begiratzeko besterik ez dago. 1986an, Wolfsburg-eko enpresak Seat erosi zuenean, 2.600 langile zuten Landabenean, eta 500 kotxe ekoizten ziren eguneko. 1992an, egindako inbertsioei esker, 5.000 ziren langileak, eta 1.158 kotxe ateratzen ziren egunero Iruñeko lantegitik. Produktibitatea —kotxe/langile/urteko— 37tik 46ra igo da, 50ko maila mitikotik oso hurbil. Volkswagenek Landabengo lantegia Seatik bereiztu nahi zuela esan zuenean, beraz, itxaropena sortu zen Nafarroan, horrela ziurtatzen baitzen, nola bait, etorkizuna. Seati buruzko krisiak, baina, dena nahastu du.

Duela hilabete t'erdia iragarri ziren alemaniarren asmoak. Krisiak erraldoia ere ukitu zuen, eta birmoldaketa «derrigorrezkoa» zen. Skoda enpresa txekiarren egin zuten bezala, Seaten beharrezkoak jo zituen aldatetarik eta hasierako asmorik ezkerrenak baieztatu dira: Seatek dituen hiru enpresetarik handiena, Bartzelonako Zona Francakoa itxi nahi dute —parke teknologiko bilakatu—, eta Martorellaren ekoizpena finkatu. Landabeni buruz, ezer gutxi, hasierako asmoekin darraizela, besterik ez.

Hala ere, Bartzelonako enpresa garrantzitsuegia da —Seatek Katalunian duen eragina Bizkaian Labe Garaiek eta Asturiasen Ensidadak dutenarekin parekatu da dagoeneko—, eta Generalitateak zein Espainiako Gobernuak eskua sartzen dute berria ezagutu eta berehala. Seati eutsi behar zaio, baina Landabenean batera. Itxura gordetzekoak dirudite, baina, adierazpenok, hastehastetik ongi prestatu estrategia ezkutatzeak nahia. Aste honetan bertan ezagutu denez, Espainiako Gobernuak agiri sekretua onartu zuen Volkswagenek Seat erostea erabaki zuenean, eta Zona Francako itxiera aurrikusten zen bertan, ezagunak baitziren enpresa espainiarren gestio kaskarra eta galera anitzak. Eta hori ezagutu beharko zuten orain Seaten konponketa eskatzen dutenek. Alemaniako enpresaren zuzendaritzan izandako aldaketak eta Espainiako agintarien axolagabekeriak erabakia atzeratzea besterik ez dute egin.

PRESTIO POLITIKO UGARI Orain, galdera Landabenean dago. Itxura guztien arabera, Seatik bereiztea izan zitekeen gerta lekiokkeen gauzarik onena, baina

presio politikoak ez dira berandak. Sindikatuen adierazpenak, ordea, kontrajarrak dira, eta CCOO Landaben Seaten jarraitzearen aldekoa agertu bada ere, UGTn gauzak ez dira hain garbi. Espainiako agintariak hiru zentruak —Zona Franca, Martorell eta Landaben— eustearen alde mintzatu dira, baina Landabenean garbi dute Volkswagenekin da-


keta egin behar zela azaldu zigutenean, UGTk txosten bat osatu zuen, eta bertan ikusi genuen Seaten egoera zela medio, onena bereiztea zela». Hala ere, zuhur oso mintzatzen da Garcia. «Lehendabizi enpresaren asmoak ezagutu nahi ditugu, eta gero egingo dugu gure balorazioa».

Aferaren gibelean Seatek egindako gestio okerra eta bene-

tako zenbakiak ezkutatzeak nahia daude. Nola azaldu, bestela, Volkswagenek Landaben bereiztu behar zela azaldu zuenean inolako erreakzioarik ez sortzea, eta orain, egoera latza ezagutu denean, planta nafarraren beharra azpimarratzea? «Seaten zuzendaritzak denoi sartu digu ziria» dio Garcia. «Langileei egoera oso txarra zela esaten zigun bi-


tartean, komunikabideen aurrean bestelakoa azaltzen zuten. Datu faltsuak eman eta beste batzuk ezkutatu egin ditu, eta horrek eragina ikaragarria izan du enpresan. Ez da gauza bera gaixotzen ari dena sendatzea edo ustelduta dagoena hartzea».

Madriren eta Katalunian, bitartean, elkartasunaren beharra azpimarratzen dute, baina Nafarroan ez dute horretaz deus adierazten. «Guk Landabeni buruz hitz egin nahi dugu» berresten du Garcia, «eta arazoa ez da bereiztea edo ez, norekin eta no-



goela etorkizuna, nahiz eta hain garbi ez adierazi. «Guk ezin dugu alde bateko edo besteko jarrera hartu» azaltzen du Esteban Garcia Landabengo Langile Batzordearen Presidenteak «oraindik ez dagoelako ezer ofizialik. Daukagun azken berria duela hilabete bat, baina, adierazpenok, hastehastetik ongi prestatu estrategia ezkutatzeak nahia. Aste honetan bertan ezagutu denez, Espainiako Gobernuak agiri sekretua onartu zuen Volkswagenek Seat erostea erabaki zuenean, eta Zona Francako itxiera aurrikusten zen bertan, ezagunak baitziren enpresa espainiarren gestio kaskarra eta galera anitzak. Eta hori ezagutu beharko zuten orain Seaten konponketa eskatzen dutenek. Alemaniako enpresaren zuzendaritzan izandako aldaketak eta Espainiako agintarien axolagabekeriak erabakia atzeratzea besterik ez dute egin.

Tartean, Juan Cruz Alli eta Nafarroako Hazienda Kontseilariarenak, biak Seaten jarraitzearen aldekoak, «arrazoi ekonomikoak» zirela eta. Jarrera hori, baina, ez da oso sendoa. Industria Kontseilariak bereizketak Nafarroaren dako «onuragarriagoa» izango zela adierazi baitzuten langile batzordekoek. Hori dela eta, kezka da nagusi bertako sindikatuenan, eta aste honetan bertan Prahango Volkswagenek plazaratu behar zituen hurrengo urteetarako asmoen berrien zain daude. Etorkizunaren berrien zain. «Bereiz-




Esteban Garcia.

OSKAR MONTERO

la gelditzen garen ikustea baikik. Orain modelo berriarekin ari gara, baina horrek sei zazpi urte iraunen du, hamar, goitik jota. Bitartean inbertsioak egiten ez badira, Zona Franca gertatu denaren antzera jasango dugu hemen: zaharkitua eta beste modelo ekoizteko gaitasunik gabe geldituko gara. Horretarako ahalmena, garbi da, Volkswagenek dauka, ez Seatek, galera ikaragarriekin. «Landaben beste lantegiaren mailaren goitik dago, inbertsioak eta gestio zuzena eraman delako. Dena egin izan dugu alemaniarrek, eta Seatekin egon izan bagina ez dakigu nola amaituko ginatkeen».

Egoera ez da duela hilabeteak baino franko desberdina, eta Prahango erabakitakoaren arabera izango da etorkizuna. «Guk ezin dugu zaila dela horrelako gogokia —Landaben— alde egiten uztea, baina multinazionalak ezagututa...». Bitartean, Landaben zain dago.



Gaur eskeiniko zaizkie langileei Prahako bileraren emaitzak.

JOXE LACALLE

Enpresa errentagarriaren miraria

A. B. / IRUÑEA

Ez dira harrizkoak Landabengo planta Seaten barruan geldin Espainiako Gobernuak eta sindikatuak erakutsi duten adore eta gogoia. Nafarroako enpresarik handiena, azken hiru urteotan egindako inbertsioei esker —130.000 milioi pezeta—, erdugarri bihurtu da bere arloan, eta bai Alemanian baita Espainian ere oso garrantzitsutzat jotzen da etorkizunerako. Wolfsburg lantegi errentagarria —Seaten egoera penagarria kontuan harturik— izatearen 'ia miraria' azpimarratzen dute bitartean, bera gabe Seaten etorkizuna iluna izango zela onartzen dute Madriren, Nafarroako Gobernuak, bitartean, ez txuri ez beltz, zehazgabetsun kezkarrien murgilduta dirau, jarrera garbi eta argiak eskatzen den garai batean. Horrek ondorio tamalgarriak ekar lezizkieke plantari berari, trukerako txanpona izateak erabakiak aldatu baiditzake.

Ez dirudi Saxonia Beherean egoitza duen enpresak lantegi nafarra bere baitan edukitzeko zuten asmoarekin atzera egingo duenik, trukean zerbait garrantzitsua lortzen ez badu, behintzat. Azkenotako inbertsio guztiek helburu bakarra dute: 'Polo' modeloaren ordezkoaren ekoizpea, eta dena prest dago horretarako. Asanblaketa planta berria eta Sendoketa Zentrua duela bitartek hona erakiri dira Landabenean, heldu den urtetik aurrera aterako den kotxe berrirako. Asanblaketa plantan eguneko 1.750 motor osatzeko gaitasuna duen 160 metrotako muntai kate dago, eta Sendoketa Zentruan 18 bagoi sartu daitezke egunero, kotxe berrirako piezez zamatuz.

Horrekin batera, 1965tik aurrera martxan zeuden beste erakinekin ere hobetu eta berritu egin dira franko, eta egun Bartzelonatik datozen pieza asko —ateak, lateralak, sabaia— bertan egin

ahal izango dira gutxi barru. Horretarako bi prentsa erraldiok paratu dira, eguneko 30.000 pieza ekoizteko. Horrek, azken urteotan lortu den produktibitate kopuruarekin batera, eskura utziko luke Lopez Arriortuak bilatzen duen 50 kotxe/langileko/urteko ratioa. Egun, 46an dago, Volkswagen enpresaren handienetako.

Izan ere, Nafarroako plantaren bilakaerak ez baitu zerikusi handirik izan Seat osatzen duten Katalunianko besteekin —bereziki Zona Francakoarekin—. Bertako lantegi handienak —9.000 langile ingururekin— beti jasan behar izan du akats kronikoa: azpiegitura zaharkitua eta produktibitate falta, berritu ez diren lantegi erraldoien ezaugarria, hain

mintzoak

Jaun ospetsuak

● Munduan izan dugun hizkuntzalari ospetsuenera bat, Luis Luziano Bonaparte Printzea izan da. Bonapartarren familiakoa, Napoleon I zen bere osaba, aitaren anaia. Ingalaterran sortua 1813 garren urtean. Kultura handikoa jaun eta guziz jakintsua. 1847 urtean argitaratu zuen bere lehenbiziko liburua hizkuntzari buruz, euskarari ohore handia emanik. Euskaldun jendearekin lehen hartu-emanak Londresean izan zituen. Antonio D'Abadieren bitartez, Euskalerrari lehenbiziko ikastaldia 1856 garren urtean egin omen zuen Uztailaren 17-an.

Bere adiskideak omen ziren: Abadie, Duvoisin eta Intxausti eta jaun honen bitartez ezagutu zuen Bonaparte Printzeak Euskalerrari. Abadie jaunaren bitartez ere Bonaparte ezagutu zuen Bruno Etxenike udazubiarra.

Bruno Etxenike jauna Urdazubian sortu zen 1820-ko Ekainaren 9-an. Elizondoko Datugarriak Nagusia zen eta hemen zaukan bere egoitza. Kultura handikoa gizona, sos-duna eta chiztari handia ere, behin baino gehiagotan egin omen zuen ibilaldia Urdazubitik Gasteizera, oinez eta ehizean. Gasteizen ere bizi izan omen zen zenbait urtez. Ibilaldi hoietan oharitzen omen zen euskarak zaukan aldakuntzak, Baztan,

Ultzama, Sakana, Altsasu eta eskualde gehiagotan ere. Bonaparte Euskalerrari etorri zenean, Etxenikekin ezagutzak egin ondoren, bere ikerketak indartu ziren zeren urdazubiarren laguntza guztien gañekoa izan baitzen. Itzuli zizkion erdararik baztandar eskuara garrantzi handikoa lanak eta Bonaparte jaunak gogo handiz hartu ere.

1856-tik 1869-raño beñipin, Printzeak lan ikaragarria egin zuen Euskalerraren barna ibiliz, Zuberoa, Salazar, Aezkoa eta Erronkariko euskalkiak aztertzen eta bai Baztan alde, Ultzama, Arakil, Burundia, Gares, Aoz eta Nafarroako bertze euskalkiak ere, Lapurdi, Baxenabarra eta bai Euskalerrari osoan ibiliz, euskar sailkatuz euskalkien arabera.

Bruno Etxenike eta Bonaparte Printzearen arteko adiskidetasuna lotura handiak zituen. Elkarrekin ibilirik zituzten Euskalerriko lurralde aunitz eta Etxenike jaunaren erakustaldiak Bonaparte Printzeak maite zituen eta erraten zuten bezak zaukan laguntzaile guztien artean Bruno Etxenike zuten maiteena.

Hamairu urtez Euskalerraren barna ibiliz Bonaparte ez zen geldirik egon eta Etxenike jaunarekin zaukan har-eman tinkoak baitziren, aunitz aldis Bonapartek Datugarria zaukan bere babesleku Etxenikeren familiaren ar-

zuten ere. Zenbaki gorriak urteroko kanta izan dira, eta Espainiako Gobernuak inbertsio itzela —300.000 milioi pezeta inguru— egin behar izan zuen 1985an Volkswagenek Seat eros zezan konbenzitzeko. Orduan ekonomiarren garai oparoak ziren, eta galerak nolabait ezkutatu ziren. Orain, krisiak eta Arriortuaren zenbaki famatuak azalean jarri dute egoera latza, bere gordintza-sunean: Zona Francako lantegia itxi behar da, eta soilik Martorell izan liteke interesgarria etorkizunean.

Landabengo bidea oso bestelakoa izan da. Gestio egokiak eta Seatek eta Volkswagenek berak egindako inbertsioak beste lantegi guztietan inoz lortu ez diren produktibitate kopurua eman dute. Iaz, esate baterako, 1.158 ibilgailu/eguneko ekoiztu ziren, eta 222.222 kotxe ateratu ziren urte osoan. Inozko markarik altuena. Orduetik aurrera, saldu ahalala ekoizten da, hau da, etekinak ematen ditu lantegiak. 4.128 langileekin, Arriortua bera, Iruñera egindako azken bitaldian, oso baikor azaldu zen bere etorkizunari buruz. Baina dena ezerezean geldiliteke Nafarroatik kanpoko erabakiak nagusitzen baldin badira. Nafarroako sindikatuak kinka latza dute aurrean, eta batzuek zehaztu dute euren jarrera.

tean. Eskutitzen bitartez ere har-eman handiak eta 1857-ko Abendutik, 1869-ko Apirila arte, Bonapartek 41 eskutitz idatzi zituzkion Etxenikeri. Erratan dutenez eskutitz hoiek guzikiak gorderik omen daude.


Bruno Etxenikek Bonaparte-arentzat baztandar eskuara itzulitako lanak ager ditzadan: 1. San Mateoren Ebanjelioa. 2. Joanesen Profetia. 3. El Cantar de los Cantares. 4. El Libro de Rut. 5. El Apocalipsis de San Juan.

Itzulpen hauek argitaratuak dira eta irakurtzen ahal ditugu. Bruno Etxenike Iruñan hil zen 1893-ko Martxoaren 14-ean 73 urtetan. Luis Luziano Bonaparte Printzea 1891-an hil zen 78 urte zituelarik. Bi jaun Agurgarri hauek gure mintzairari eman dioten ohorea aipagarria da. Bonaparte jaunak opariak ere eman zituzkion Etxenike jaunari, hoiaren artean urteko ordularia markarik hobereenetakoa eta balio handikoa. Ordulari hori nere aita zenak ikusi zuen, Etxenikeren illoba baitzek erakutsirik. Ordularian hitz hok zaukan idatzirik: 'Bonaparte' tar Luis Luzianok, Etxenike jaunari'. Interesgarria bai zinez. Ordulari hura non ote dagoen Jainkoak bakarrik daki.



Mariano Izeta Erlojularia

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren 2. Ihardunaldiaren partida. 1993ko urriaren 23an jokatu. Pedro Viñal, 2.250 ELOkoa (Anaitasuna)-Santiago Alfonso 2.030, ELOkoa (Runa 'A')

1.d4,e6; 2.c4,f5; 3.g6, Zf6; 4.Ag7,Ab5 xa; 5.Zc3,0-0; 6.Zh3, d6; 7.0-0,bZ-d7; 8.Db3,Ac6; 9.c3, De8; 10.Ag5,h6; 11.Af6, Zf6; 12. Zf4,5. Oso arriskutsua dirudi jokaldi honek beltzentzat. Alfila, bitartean, atera ezinean. 13.Zd3,c6; 14.c5,d5; 15.h3,Zd7; 16.f4,Zf6; 17. Ze5,Dh5; 18.Dc2, g4; 19.h4. Erregaren aldean blokatu egin da posizioa. Txuriek zutabe bat daukate eraso egiteko. Beltzek, ordea, ez dute jokorik.

19....,Ad7; 20.fG-b1,Ac8; 21. Da4, De8; 22.Gb3,Eh7; 23.e3, De7; 24.aG-b1, Gg8; 25.Db4, Gg7; 26. a4,h5; 27.a5,a6; 28.Zd3. Beltzak atzean daude, zain. Txuriek beren zaldiaz apurtzera joko dute. 28...., Zd7; 29.Zb2,Gf7; 30. Za4, Gg7; 31.Af1. Orain alfila sartu da jokoa. Beltzek lekurik gabe diraute.

31...., Gf7; 32.Da3,Gg7; 33. Gb7. Espazio abantaila aprobetxatu nahirik, gaztelua eskaintzen dute. Ausardia eskatzen duen jokaldia. Ikus koadroa. 33...., Ab7; 34.Gb7,Dd8; 35.Zb6,Zb6; 36. Gb6,Dc8; 37.Db4. Gaztelu gehiago edukita ere, beltzek tokia ezin aurkitu. 37...., Gc7; 38.Ad3, cG-a7; 39.Ac2,Gc7; 40. Db1,Dd7; 41.Df1,Dc8; 42.Ad3, cG-a7; 43.c4,Eg6; 44.Db1,Ge7. 'Gf7' hobia da. 45.d5,e-d5; 46.Af5 xa.

Partida hemen amaitu zen, damak ez baitzuen salbaziorik. Beste peoiaz jan izan balu, bukaera interesgarria izanen genukeen, baina txurien nagusitasunaz ere.

Jauntxoa eta lapurra

LUZIA ELIZETXE

Bazen behin jauntxo bat, jauntxo dirudun bat, bere zaldigainean bere gaztelura zihoana. Bidaian zegoelarik beste gizon batekin topo egin zuen. Gizon hau lapurra zen, baina ez lapur arrunt bat, baizik eta prestigio handiko lapurra. Honek inoiz ez zuen huts egin, berarentzat oso erraza baitzen lapurtzean. Lana egiten hoberena zen.

Gure jauntxoak, berriz, dirudun itxura zuen, baina ez zuen edozeinek erraz engainatzen uzten, gizon azkarra zen eta. Jauntxoak bere bidaia segitzen zuen bitartean, lapurra hurbildu zitzaion, eta esan zion ea no-

rantz abiatzen zen. Jauntxoari ez zitzaio gezurretan aritzea gustatzen, eta bere gaztelura zihoala esan zion. Lapurrak hau entzutean ulertu zuen gizon diruduna zela, eta galdetu zion ea bazekien non zegoen ostatu on bat lo egiteko. Jauntxoak esan zion bera horrelako ostatu batera abiatzen zela, eta bere presentziak molestatzeko ez bazuen elkarrekin joan zitezkeela.

Hala gertatu zen, eta biak afaltzera zihoazen bitartean lapurra altxatu zen eta jauntxoaren logelara joan zen diru bila. Baina nahiz eta lana heretxetik ahal-lagin guztiakin egin, ez zuen ezer lortu. Hurrengo goizean biak beren bideari segitu zioten,

beste ostatu baterantz iritsi arte, eta hemen lapurrak bere lanari ekin zion berriro, baina ezer lortu gabe.

Lapurra oso harriztasun zegoen, berak inoiz ez baitzuen huts egin, eta kuriositatearen presioa zela eta lapur bat zela esan zion, bera diru bila zegoela eta mesedez bere dirua non demontre gordetzen zuen esateko, bere aldetik alde egingo zuela.

Jauntxoak orduan esan zioen gauetan afaltzerakoan lapurra- ren gelara abiatzen zela eta bere burukopean gordetzen zuela dirua, bazekielako leku izkutuena zela, berak ez zuelako bere logelaren barruan jauntxoaren dirua bilatuko.



Iruñerria

Izen hau gero eta gehiago erabiltzen da gure artean, *Iruñerria* izenaren erroetan *Iruña* ikusten dugu aurreneko zatian eta *herria* bigarrenetan. *Iruña* zer den ez da azaldu behar eta *herria*-ren esanahia, joan den astean aztertu genuen bezala, ez da 'populu'-ren sinonimoa 'eskualde-rena' baizik. *Terra Pampilonense* zen erdal kide zaharra, nahiz eta aspaldidanik gehien erabiltzen den forma *Cuenca de Pamplona* izan; *Cuenca de Pamplona* irakurtzen dugu XIII. mendearen erdialdean idatzitako Nafarroako Foruan. Nondik nora zabaltzen da, ordea, Iruñerria?

Zenbait haran eta zendearekin gehientsuenak bat datoz. Goitiago aipatu Foru Jeneralean zehazten da zer den Iruñerria: 'Iruñerria zer den esan behar dizugu *Sant Martin d'Aspatik* (Eguesibarreko azpa) *Yruegira* (Arangurengo mendia), *Errenega*-n (sic) Belaskoingo zubia, *Osquiat*, *Eçcauart*, alderdi hau da Iruñerria; *Osquiat*-ez goiti, *San Esteban*-ez goiti (Xulapaingo San Esteban), *Larumbe*-z goiti, *Marquelayn*, *Anoñibar*, aipatu hiri hauetaz goiti, mendialde guzian hilketagatik hamabi idi zor dituzte'. Hots, Larunbe, Markalain eta Anotzibar ziren muga herriak. Madozek bere hiztegiaren esaten digu Iruñerriko mugak direla Ezkaba eta Miraballes mendiak iparraldetik eta Reniega edo El Perdon eta Alaitz mendiak hegoaldeko.

Nafarroako banaketa administratibo eta eklesiastikoak eremu berdintsua hartzen du Iruñerriat. Bitxikeria gisa Iruñerria bi marinerriren artean banatuta dago, zatirik handiena Iruñekoan baina Burlata, Uharte, Eguesibar, Aranguren eta Elortzibar Zangozakoan dira. Baina geografiari estuki lotuz honako hau genduke benetako Iruñerria: Iruña ardatza delarik, aurren aurrea Antsoasin, Itza, Oltza, Galar eta Zizur zendeak, gero Eguesibar, Aranguren eta Elortzibar eta azkenik Gulibar, Xulapain eta Ezkabarte. Gainera Etxauribar eta Olloaran. Horietaz gain, JM Iribarrenek dioen bezala, Esteribarko hegoaldea ere Iruñerriat hartu beharko genuke, Zuriainaino behintzat, hor estutzen baita ibarra.

Horixe da gainera 1977. urtean argitaratu zen *Iruñerria-La Cuenca de Pamplona* izeneko liburuan definitu zuten Iruñerria. Liburu guziz interesgarria Iruñerriaren berri izan nahi duenarentzat, Iruñerriko mendiak irudikatzen dituen plano interesgarri batez hornitua.

Bada, haatik, beste erizpide bat Iruñerria zer den tajutzeko, arras murriztailea gaur egun. Aintzinean esaten bait zen Iruñerrikoak zirela Iruña odoan eta Katedrala *Campana Maria* aditzen zuten herriak zirela. Honen arabera, beraz, Nabarreriar mugatuko genuke Iruñerria garai zaratzatu honetan.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Ilemoztailearekin mintzatu eta geroko ariketa

Nolatan ausartzen zara besteei ixilekoa gordetzeko esatera? Ez zenuen hori esan beharrik, zerorrek gorde bazenu.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Haga
2. Itsasontziko ertz
3. Herri nafarra
4. Gorputz atala
5. Zauliak



1. Burutuak
2. Herri nafarra
3. (Fam.) Anton
4. Merkatua
5. Izanak



1. Herri nafarra
2. Lagunik gabe
3. Ez garbia
4. Partida-puntu
5. Maledizioa



N-99

Trafikoko isunak edo udaletako aktak euskaraz egiteko aukera baldin bazegoen ere, gutxi dira bide hori jorratzera ausartu direnak. Arazoak sor litzakeen beldurra, edo, besterik gabe, ezagutza falta, eskubideen gainetik egon dira askotan, baina aurtengo ekainetik Trafikoko Zuzendaritzak badu itzultzailea.

Hautsitako manamenduak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

«Barne Ministerioa-Probin-tziako Trafiko Zuzendaritza: Espediente honi buruz Probin-tziako Aginte zehatzaileak ondoko ezbazpena erabaki du hitzez hitz: (...) Goian aipatzen diren egun, ordu eta tokian eta idatzitako arrazoiarengatik salaketa jarri zitzaizun bertan aipatzen den manamendua ustez haustegatik».

Gutxi irakurri dute, hain segur, horrelako agiririk, baina ohizko isun baten itzulpena besterik ez da. Nafarroan lehendabiziko aldiz, itzultzaile paratu baitute Estatuko Administrazioaren barruan. Ekainetik hona Trafiko Zuzendaritzak horretarako kontratatu zuen langilea, eta bere lanak oraindik atarramendu praktikorik eman ez badu ere, euskaraz beste alor bat bereganatu du, dudarik ez.

Prozesua oso erraza da. Eskualde eskalduneko eta, teoriaz, mistoko biztanle orok badu Estatuko Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea. Trafiko Zuzendaritzari dagokionez, isunak dira ohizko harremana, eta salaketak erdaraz heltzen dira etxetara, erdaraz egiten baitira. Hori dela eta, errekurtsioa jar daiteke euskaraz jasotzeko, eta lege guztia alde. «Batzuek hartu dute dagoeneko bide hori», azaldu du Josetxo Azkona itzultzaileak, «esanez euskara bidali ezean ez dutela onartuko, hizkuntz eskubidean oinarrituta. Isuna horiek hartu eta itzuli egin behar dira, eta horretarako lan guztia egi-

na dago». Bi hilabetetan Administrazioaren aldetik berririk ez badago, salaketak ez du baliorik, eta isunak ez du aurrera egingen.

Gogoratu behar da Goardia Zibilak eta Foruzaingoak jarritako isunez ari garela, udaltzaingoek udal bakoitzean bideratzen baitira. Foruzaingoak, berriaz, ez du isunak bideratzeko ahalmenik, baina bai salaketa egitekoa, eta behin bideratuta, Espainiako Barne Ministerioaren Trafiko Zuzendaritzara igarotzen dira zuzenean.

ORAINDIK ERE ARTXIBATUTA

Hala ere, orain arte ez da lortu azken urratsa. Hau da, errekurtsioa aurkeztuz gero, isunek ez dute baliorik, euskaraz jasotzeko eskubidea garbi azaltzen delako Euskararen Legean, baina artxibatuta gelditzen dira, erabakiaren zain. Izan ere, Administrazioan egoera berria da oso, eta zehatz-mehatz zer egin behar duten jakiteko galdera egin zaio Nafarroatik Estatuko abokatuari.

Garbi dago bidea zabaltzeko jendeak horren kontzientzia hartu behar duela. «Gero eta gehiago erabiltzen baldin bada bide hau», dio Azkonak, «ezinbestekoa izango da azkenean onartzea, eta baliagarritzat ematea». Bere ustetan, erabaki horrek bidea zabalduko lioke Administrazioan euskara erabiltzeko bete hainbat prozedurari. «Administrazioa ezagututa, lehendabiziko urratsa da zailena. Hori eman eta gero, dena arrapaladan etortzen da».



Ertzaintzak paratutako isunak euskaraz jaso daitezke.

XOUSE SIMAL

Hala ere, gidatzeko karnetak eta antzeko beste agiriak euskaraz egiteko garaia oraindik urrunegi dagoela aitortu du. «Etorriko da, baina».

«Zintzoenak, Oizkoak»

A. B. / IRUÑEA

Bakarra izanda, trafikoko lana ezezik, beste arloetako agiriak itzultzea ere egokitu zaio Azkonari, eta beraien artean, udaletako aktak. Azaldu duenez, oraindik ez dira sobera erabiliak euskaraz hutsezko udal erabakiak, baina horretan zintzoenak, dudarik gabe, Oizkoak. «Akta guztiak euskaraz bidaltzen dituzte, hutsik egin gabe, jator eta zintzoenak dira. Leitzatik ere zerbait heldu zaigu. Eta sikiera jakin dezatela zerbaitetarako balio dutela lanek, orain itzuli egiten direla, eta besteekin batera artxibatu». Izan ere, udaletxeko akta guztiak Estatuko Administrazioa bidali behar dira, eta euskal eremukoek, jakina, euskaraz erabiltzeko aukera badute. Orain arte, baina, euskaraz bidaltzen ziren agiriak artxibatu egiten ziren zuzenean.

Trafikoko salaketekin bezala, eskabideak ugaltzearen beharra, hau da, bide hau gehiago erabiltzearen beharra azpimarratu du Azkonak. «Orain paratu dute

itzultzailea eskaera batzuk jasotzen zituztelako, baina eskabiderik nahikoa ez badago ken lezaketek. Horregatik, garrantzitsua da jakitea euskaraz egin egin daitekeela, eta euskaldunek erabil dezaketela bide hau». Horretara bultzatu nahi ditu bezeroak Azkonak.

Beste motatako lorpenerako, baina, oraindik ez da bide erraza. «Bertan badaude euskaraz ikasten ari diren langileak, eta haien aldetik orain arte erakutsitako jarrera ona da. Egina dago jadanik kartelak eta inprimakiak ere euskaraz izateko eskaera zuzendaritzari, baina oraindik ez da horren inguruko erabakirik izan».

Nafarroako Estatuko Administrazioan soilik Trafikoan paratu du zerbitzu hau, bestetan —Entzuteagian, Gobernu Zibilean, Gobernu Militarrean— ez baita horrelakorik ezarri, eta behar izatekotan —euskaraz egiten diren epaiketetan, kasu—, Nafarroako Administrazioari eskatzen zaio itzultzailea.



Ustez hautsitako manamendua ezerezean gelditu daiteke euskaraz eskatuz gero.

JOXE LACALLE

Jesus Lamberto

Irristaria

Hogeita bat urteko gazte hau, irristaketa txirrindularitza bezain ospetsua izanen bultz, Miguel Indurain bezain ezaguna izanen litzateke gutxi barru. Jesus

Lamberto erregea izan da lasterketa luzeetan aurten jokaturako Europako txapelketan, eta bere gaztetasuna kontuan harturik, bere geroa Indurainena bezain distiratsu ageri da.

«Liskarretatik ihes egin behar da»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Hogeita bat urte ditu, horietatik hamasei irristailuen gainean eman ditu. Amaia Kirol taldean hasi zen irristaketan, gero urtebete Ada taldean eman zuen, eta egun Txantrea taldearen elastikoa jantzen du. Irriak horrenbeste denbora igarotzearen ondorioz, gaitasun berezia lortu eta bere burua munduko onenen trofelean sartu du. Aurtengo Valence D'Ageneko Europako txapelketan urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko beste bat lortu zituen, 5.000, 10.000, 15.000 eta 20.000 metroko lasterketan, eta iaz munduko txapelkunordea izan zen. Jada ez da nolanahikoa iruñen gazte honen palmarena, eta benetan ikusgarria izaten da Antoniuttin, astebaruko edozein egunean entrenatzen, edota Nafarroan ugari diren lasterketan erakusten duen maila eta gaitasuna. Irriak izan diren azken aldaketekin, baina, oraindik ez da ohitu, eta pasa den igandean, Barañainen, anaia gaitasun zuen. Hor amaitu zen denboraldia, eta dagoeneko hurrengo prestatzen hasi da.

EGUNKARIA.— Zuk egiten dituzun lasterketak ez dira makalak. 20.000 metro egitea ez da gutxi, irristailuen gainean izan arren. Zer-nolako entrenamenduak egiten dituzue?

JESUS LAMBERTO.— Denboraldiaren hasieran —oraintxe hain zuzen ere— gehien bat fondoan lantzen dugu, gero azken uneko abiadura eta fondo, eta azkenik azken uneko abiadura eta erresistentzia lantzen dugu. Orain egunero bost ordu inguru ematen ditut entrenamenduetan, baina entrenamendu benetan gogorak Europa eta Munduko txapelketak ailegatzear daudela egiten ditut. Orduan egunero goizez eta

Iruñean zorte handia daukagu, irristaketarako oso pista onak ditugulako eta entrenatzailerak onenak direlako».

arratsaldean entrenatzen aritzen naiz. Entrenamenduak bi motakoak izaten dira, batetik irristailuekin ibiltzen naiz, eta bestetik, Martin Salazarren laguntzaz, pesekin giharrak lantzen ditut.

EGUNKARIA.— Azken unean —20.000 metro egin eta gero—, abiadura garrantzitsua omen da oso irristaketa lasterketan. Helmugaratzeko orduan trebea omen zara oso. Zertan datza zure trebetasun hori?

LAMBERTO.— Nire funtsezko araua liskarretan ez sartzea da, liskar batean parte hartzen baduzu oso zaila baita lehena helmugaratzea. Ukondoek zeresanik badute helmugaratzean, eta zenbait lasterketan bostgarrena joan arren lehena helmugaratu zaitezke ukondo eta liskarretatik ihes eginez gero. Dena den, batzuetan norbaitek elastikotik oratzen bazaitu zerbait egin behar duzu. Horrelakoetan oso erraza da deskalifikatua izatea. Hoberena liskarretatik ihes egitea da.

EGUNKARIA.— Zu ez zara irristailuen gainean ederki dabilen Lamberto bakarrik; izan ere, zure anaia Carlos ere punta-puntako irristatzailea da. Zer duzue Lambertotartek?

LAMBERTO.— Ba egia esateko ez dakit. Espainiako selekzioak hiru gizon bidali zituen munduko txapelketara eta horien artean anaia eta biok izan ginen. Horretaz



gain, aipatu beharra dago Mariagure arreba ere ederki aritzen dela irristailuen gainean. Nik 21 urte ditut, Carlosek 20 eta Mariak 19.

EGUNKARIA.— Lamberto familiakoak ezezik, Nafarroan egon badaude irristari aunitz ere. Zer dela eta?

LAMBERTO.— Hau galdetzen didatenean nik beti gauza bera erantzuten dut, Iruñean zorte handia daukagula irristaketa kantxa asko dauzkagula hain zuzen ere. Antoniutti, Sanduzelai eta Barañaingo pistak oso txukunak dira. Gainera, Sanduzelai eta Antoniuttin jendearean aritzen gara entrenatzen, eta horrek

gaztetxoak erakartzen ditu. Horretaz gain, nafarrak onenak izatearen beste arrazoi garrantzitsua zera da, hemengo entrenatzaileak onenetakoa direla. Bestalde, irristaketan hasberria den jendeak punta-puntako irristatzaileekin entrenatzeko aukera dauka, eta modu horretan asko ikasten du. Azken finean, aipatu dudak guztiak laguntzen du.

EGUNKARIA.— Aurten 'lerroko irristailua' irristailu mota berriak irristaketaren mundua irauli egin du. Zer berri ekarri du irristailu honek?

LAMBERTO.— 'Lerroko irristailuak', bere izenak azaltzen due-

Asko kosta zait lerroko irristailuekin ohitzea. Berandu hasi nintzen, eta egun nik baino maila altuagoa dutenak badaude».

nez, gurpilak lerroan kokaturik dauzka. Bost gurpil ditu, eta ez lau ohizko irristailuek bezala. Gurpil horiek ohizkoak baino estuagoak dira, eta horren ondorioz igurtzimendua txikiagoa da. Irriak izan gainera, luzeagoa da, eta horren ondorioz irristatzeko moduak izotz gaineko irristaketarekin antza handiagoa dauka. Azken finean haien abantailarik handiena azkarrago joateko aukera ematen duela da. Oso zaila da irristatzeko modu berri horretara ohitzea. Niri asko kosta zait. Europako txapelketan medio beranduago hasi naiz irristailu berriekin, eta egia esateko egun maila altuagoa dute beste batzuek nik baino, nire anaia eta Sergio Huartek esate baterako.

EGUNKARIA.— Zenbait adituek irristailu berriak sortutako iraultzak Nafarroa maila gorenetik alendu dezakeela diote. Bat al zatoz uste horrekin?

LAMBERTO.— Ez. Zorionez irristaketan aritzeko eguraldi ona ez da beharrezkoa, eta hemen, azpiegiturei dagokionez, Espainiako hoberenak daukagu. Aldaketa hau gaitasun zuen, eta hor goi-goian segituko dugula uste dut. Gainera, heldu den urtean Europako txapelketan Iruñean izanen da, eta horrek bultzada handia ematen dio nafar irristaketari. Horri esker, gainera, Antoniuttiko kantxa luzatuko dute.

NISKIJATOR

© Zaldi Erroak

